

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Asteko gorabeherak
osoko bilkuran /08

BEKA

Eskoriatzako herria
ikerketa beka /09

LEINTZ GATZAGA

Mendi bizikleta
martxaren kronika /10



MEXIKORAAA!

AKORDEOI ORKESTRAREN BIDAIA

URKULU: HAINBAT BERRIKUNTZA/5 • KIROLAK: BIXEN CALZON/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 2
FRAILE. Herriko Plaza 10 943 79 21 99

DOMEKA, 3
FRAILE. Herriko Plaza 10..... 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institutua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxio ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 79 74 58
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAIINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Delak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdik 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

HAINBAT IKASTARO HERRIKO KZGUNEAN

Aretxabaletako Kzgunean Outlook Express ikastaroa izango da aukeran, urriaren 11n, 18:00etatik 20:00etara. Urriaren 13an eta 14an, berriz, banketxearekin Internet bidez harremanetan zelan jarri azalduko dute. 18:00etatik 20:00etara izango da hori ere. Bestalde, IT txartela eskuratzeko aukera izango da urriaren 15ean.

ESKULAN ETA BAINIKA IKASTAROAK

Eskulan eta bainika ikastaroak antolatu ditu Udalak. Ordutegiari dagokionez, aukera zabala da eta errelebutan lan egiten dutenendako aukerak ere badira. Informazio zabalagoa kultura etxean, 09:00etatik 13:00etara.

EGUZKIEN ETO ETXEETARAKO IZENEMATEA

Urriaren 14an bukatuko da Eguzkienean egingo dituzten 185 etxebizitzetarako izena emateko epea. Udalak finkatutako preziodunak izango dira. Etxebizitzak sustatuko dituen enpresak, Bruesak, Aralar kaleko 8. zenbakian ireki duen bulegora hurbildu behar dute interesatuek; martitzen edo eguenetan, goizez nahiz arratsalde. Udalak jarritako baldintzak bete behar dira.

LORAMENDIREN AGENDA


ESKULAN ETA BAINIKA IKASTAROAK

Loramendik antolatutako bainika eta eskulan ikastaroetan parte hartu nahi izanez gero, urriaren 15a baino lehen egin behar da izenematea. Eskulan ikastaroa martitzenetan izango da, eta bainikarena eguaztenetan, biak hala biak 18:00etan. Eskulan ikastaroa Rosa Del Aguilak emango du, eta bainikarena Blanca Perekak.

ORAINDELA 10 URTE ARETXABALETAN

Joseba Larrinaga munduko bigarrena

Joseba Larrinagak bigarren postua lortu zuen, elbarrien munduko maratoian. Berlinen korritu zuen Josebak, eta Aretxabaletako korrikalariak oso maila ona erakutsi zuen. Omenaldi gisa Udaleko ordezkariak ongietorri berezia egin zioten duela hamar urte, eta plaka bat eman zioten.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elepuru

“Erreparu”

—Erreparu emoten dost jentiai ze edade daukan preguntetia.



JON IRAEGI

LIBURUTEGIKOTXOKOA



TANGO URDINA
Aitziber Etxeberria
Erein, 2003
215 orrialde

Nobela honetako protagonista narratzailea ere bada aldi berean. Bakarrik bizi da bere neskalagunak utzi zuenetik, eta bere etxeko bizilagunen kontuak tartekatuko ditu berari gertatzen zaionarekin batera. Drama handia bizi du bere gaineko familiak, aitziberen txarra ematen dielako emakumeari eta alabari. Bere aldameneko emakumea, berriz, herritik hirira etorri da bitzta berriaren bila, mutil-lagunak ezkondu aurretik utzi zuelako. Aitziberren lehenengo nobela honek 2003an Donostia Opera Prima saria jaso zuen.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Adi!

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria-k** beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

BEIRALAN

KRISTALDEGIA

Markoztatze profesionala prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta
943 79 81 78 / 670 997 274

Hirusta
Zatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA


ATREBENTZIAEZPADA/ Urkulun kaminoa konpondu eta aparkamentuek egittia ze pentsetan jatzu?



JOSE LENS
jubilaue



MARIA CORRAL
langilie




MARTIN ARANA
jubilaue



AITOR LAGUNILLA
langilie



YOLANDA CORBALAN
langilie



ASUN ZORRILLA
langilie

Galderia itxia be. Bada zerbaitx egiteko ordua, Urkulu ingurue penagarri dau eta. Bide aldamenetan sasi mordue dau, horreik garbitxu bier die, eta zakarrontzi batzuk be ipini.

Nire ustez beharrezkue da bidie asfaltetie, kamioiak aurrera eta atzera ibiltxen die eta hauts galanta jasoten daue. Eurixa egiten dauenien, barriz, lokotzarak egoten die.

Kaminue konponduta egon biherko zan! Kamioiek jasoten dauien hautsaz, askotan ezin gara Koruetatik aurrera fan. Oinez fateko txarto egoten da. Itxurriak be falta die Urkulu bueltan.

Aparkamentuek egittia ondo dauela uste dot. Hala ta be, jentiek bidegorrixa sarrixau ebali biherko leuke Urkulura etorteko. Kaminoa konpontzie be ondo egongo litzake.

Primeran. Oinez joateko askoz hobeto. Baina beharrezkue izengo da zerbaitx jartzie, Koruetatik aurrera ez daitxezen automobilak pasau. Bestela, zati hori be automobilez beteko da.

Kaminoa konpondu eta asfaltatzie ondo. Baina zerbaitx ipini daixiela automobilak ez pasetako. Urkulura oinez ibitxen etortzen gare, eta ez automobilien ibiltxera.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK KANPOSANTUA TXUKUNDUTA Duela aste bi kanposantura joateko ohitura duen herritar batek deitu zigun, kanposantua gehiago zaindu beharko luketela esanez. Aretxabaletar horren ustez, belarra sarriago moztu beharko lukete. Aste kanposantura argazkia ateratzera joan gara, eta belarra moztuta dagoela ikusi dugu. Oraingoan, txistuak txalo bihurtu dira. /M.A

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Akordeoi taldekoak Mexikora

Bihar, zapatua, Mexikora joango dira akordeoi taldeko kideak kontzertuak eskaintzera.

ASTEAN BEHIN /05

Urkulu berri-zeko asmoak

Urkulun hainbat lan egitea ezinbestekoa dela eta, kaminoa konpondu egingo dute, besteak beste.

KIROLA /06

Bixen Galzoni elkarrizketa

Goiena -Sport izeneko taldea eratu, eta kirol etxeko kirol jardueren ardura du.

ASTEKODATUA

1.975

FRONTOIA ERAIKI ZEN FRANCOREN DIRULAGUNTZAREKIN

Egun kirol etxe gisa ezagutzen duguna 1975ean eraiki zuten, Francoren dirulaguntza bat tarteko. Ondoren, 1988an, berritu egin zuten, eta kirol etxe bezala ezagutzen duguna egin zuten.

BESTEKEKESANA

“ Aretxabaletan, Arrasaten eta Eskoriatzan oso jende diziplinatu eta langileak dira.

Horregatik, ziur naiz aurten Zarauzko Kilometrotan egin duguna gainditu egingo dutela.


MARTIN ETXEBERRIA
‘DIARIO VASCO’/04-10-05

“ Lan handia da, Gipuzkoako ikastolak ordezkatzeko baititugu. Bakoitzak egiten duen lanak erakusten

du gizarte ikastolak nolakoak garen. Badakit horrela egingo dutela, baina arduraz hartzeko eskatuko nieke. Beti egoten dira akatsak, eta horietatik ikasita, aurtengo jaia baino hobea egiteko erronka dute.

ZIGOR SAIZAR
‘BERRIA’/04-10-05

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



Katua erbiaren ordez

Entzungo zenuten honez gero Zubillagako hiltegia ixtekotan direla. Eta Oñatikoa bezala baita Durangokoa ere. Egoera garrazten ari da benetan. Mankomunitatearen diren hiltegiak itxi nahi dizkigute eta, orain artekoan bezala zerbitzu publikoa izan behar lukeena, pribatizatu guran dabilta. Arduradunek diotenez ez ei dira ez errentagarriak ezta beharrezkoak ere. Litekeena da baina, errentagarritasun falta hori gestio akatsek edota utzikeriak berak ekarritakoa izatea. Beharrezkotasunaren alde, ganadu esplotazio txiki gehienak desagertuko liratekeela esatea aski da. Eusko Jauriaritza “Gure Okela” izeneko merkatal elkarte baten sorrera bultzatzen ari da haragi sektorearen sare osoa kontrola dezan (hazkuntza, gizentze, sakrifizio, eraldaketa eta komertzializazioa). Ez da kasualitatea halaber, Bilboko hiltegia enkantean saldu eta

pribatizatu nahi izana. Esandako elkarte berri honek nonbait burutu beharko ditu bere eginkizunak eta ederto asko datorkio Bilbokoaren pribatizazioa. Txapel bakararekin bi buru estaliko lituzke! Zenbait ganaduzale ere hasi da, presaka antzean, elkarte

Mankomunitatearen hiltegiak itxi nahi dituzte, eta zerbitzu publikoa izan behar lukeena, pribatizatu guran dabilta

berriak sortzen. Hartara, baserritarrok, derrigorrean, gure ganadua bertara edo halako elkarte handiren batera saltzera behartuta geratuko ginateke. Zonaldekako hiltegi hauek beharrezkoak ditugu eta gainera,

garai batean adostu bezala publikoak behar dute izan. Betidaniko baserritar-harakin katea hautsita eta labelaren erlijiora itsu-itsuan batzen bagara haragiaren benetako kalitatea galduko dugu. Seguru. Ez pentsa loa berandutzeko moduko arazoa ez denik; baserritarrek ez ezik gainontzekoak mobilizatzea ere ezinbestekoa da. Ez diezagutela katua erbiaren ordez saldu.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Maria Agirre

ERREDAKZIOA
Maria Agirre

MAKETAZIOA
Alex Azkarate
Imanol Soriano

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritza
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

UDAKo jokalarixak

Zubixen kanpora noie. Zer pentsetan jatzue? Ez noie oso urrin, beti be akordeioi taldekuakin konparetan hasitxa. Hareik ozeanue pasauko dauie, hori bai, nahikua zurito eta errifa saldu ostien. Ondo fan eta hobeto etorri daitxezela!

Pentsetan jarritxa, futbol jokalarari izetie ez da fazile. Fan dan zapatu atsaldien partidua euki euien preferente mailakuek. Maritxu ostien, Tolosara fan bier izen zien. Gipuzkoako kapital izendakora bidali nauen txorixek esan doztenez, ondo jokatu euien etxekuek, Maritxuren bixamona etzan igerrri. Hori jakin ostien, susmo mordue etorri jaten, eta inbestigetari jarri nitzen. Proibidute dauen zeozer hartzen ote dauie UDAkuek? Eta erantzuna, ezetz. Zer eta, zapatu eguerdixen jokalarari danak alkartu zien atxabaltako soziedade baten, eta batera bazkaldu euien. Entrenadoriek spaghetixek jarri otzien, jokalarixek bier izeten duien alimentue. Gero Tolosara fan, eta enpate. Ezta saltoka etorteko resultaue, baina galtzie txarrau izengo zan. Bueno, eta datorren domekan, berriro nire txorixa preferentekuen partidura bielduko dot. Txantxiuak etorriko die domekan, espero deigun hareik oindiok be jaixetako bixamonaz egotie.

KULTURA/Urriaren 9an abiatu, eta 24rako itzuliko dira. Guztira 26 lagun joango dira Mexikora

Mexikora doaz akordeoi orkestrako lagunak, bertako euskal etxeak gonbidatuta

MARIA AGIRRE

Ez da makala oraingo honetan akordeoi orkestrako lagunak egingo duten bidaia. Nora eta Mexikora joango dira bihar, hiriko euskal etxeak gonbidatuta. Bertan hainbat kontzertu eskainiko dute, akordeoi taldea ezagutzera emateko. Guztira 26 lagun doaz.

Duela urte bi Pragara egin zuten bidaia, eta oraingo honetan Mexikora joateko gonbita jaso dute. Juanjo Orobengoa akordeoi orkestrako zuzendaria Mexikon izan zen otsailean, eta bertan izan zituen hartu-emanen ondorio da bidaia. Guztira 26 lagun joango dira, lau guraso tarteko. Akordeoi taldeko kideei berebiziko ilusioa egin die Amerikara egingo duten txangoak.

KONTZERTUAK ESKAINTZERA

Hala ere, lana ere izango dute. Makina bat kontzertu hitzartu dituzte, eta horiek prestatzen gogor egin dute lan azkenaldian. Mexiko hiriburura iritsi bezain laster kontzertuak eskaintzen hasiko dira. Bertako unibertitate baten eta kontserbatorio nazionalen emango dituzte kontzertuak, besteak beste. Guztira lau kontzertu eskainiko dituzte hiriburuan. Ondoren Acapulcora joango dira, eta euskal folkloreakin lotutako kontzertuak eskainiko dituzte bereziki. Izan ere, euskal etxeen arteko mus txapelketa izango da, eta herriko akordeoi taldeko kideek giroa alaituko dute.

Baina dena lana ez dela izango eta, Acapulcon izango dute hondartzara joan eta turismoa egiteko aukera ere. Urriaren 24rako itzuliko dira herrira.

DIRULAGUNTZA BIDAIARAKO

Juanjo Orobengoa zuzendariak esan digunez, gutxi gorabehera 38.000 euroko aurrekontua du bidaiak, eta azken bi urteetan txosna jarriz eta txartelak salduz, dirua lortzeko egin duten ahaleginari esker ordainduko dute bidaia. Bestalde, herriko Udalak ere eman die dirulaguntzarik, baina Jaurlaritzari zuzendutako eskaerak ez du arrakastarik izan.



AITOR LIZARRALDE

Azkenaldian entsegu ugari izan dute akordeoi orkestrako lagunak.

Hainbat kontzertu emango dutenez, azkenaldian buru-belarri ibili dira lanean

Bitxia, bestalde, zelan eramango dituzten akordeoiak. Bi zatitan desmuntatu, eta zati bat hegazkinera eramango duten eskuko poltsan eta bestea fakturatuta bidaliko dute.

Bestalde, tinbalak eta bateriak Mexikon alokatuko dituzte, hemendik ez eramateko. Nahikoa burukomin eman die musika tresnak zelan eramanez erabakitzeak, baina azkenenean horrela eramanez dirua aurreztu egingo dute la uste dute.

38.000 euroko aurrekontua du bidaiak. Udalak ere eman die dirulaguntza.

PARTAIDEAK OSO POZIK DAUDE

Akordeoi taldeko kideek buru-belarri egin dute lan azkenaldian kontzertuak prestatzen. Gehienak gazteak direla eta, ikasketen gaia ere konpondu behar izan dute Mexikora bidaiari joan aurretik. Zuzendariaren arabera, gehienek unibertsitetean ikasten dute, eta apunteak eskatzeko moldatu behar izan dute. Beraz, Mexikotik bueltan lan bikoitza izango dute. Hala ere, akordeoi kontuak ez dituzte albo batera

Acapulcon izango dute hondartzara joan eta horrez gain turismoa egiteko aukera.

utziko; izan ere, azaroan Kataluniako talde baten bisita izango dugu, eta ondoren aretxabaletarrak joan beharko dute bertara kontzertua ematera.

Mexikon akordeoi doinuak ezagunak ote diren galdetzerakoan, berriz, Orobengoak esan digu akordeoilariz osatutako taldeak ez direla batera ezagunak. Hori bai, akordeoiaren inguruan bada ikasketarik. Unibertsitetean, esaterako, akordeoiaren inguruko katedra dago.




Matikua jatetxea

Azata auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

HIRIGINTZA/ Goroetatik aurrera dagoen bidea asfaltatu egingo dute, besteak beste, baina litekeena da piboteak jartzea autoen joan-etorria eragozteko

Berrikuntzak Urkulun: kaminoa asfaltatu, 166 autorendako aparkalekuak eta seguruen piboteak jarriko dituzte

MARIA AGIRRE

Goroetatik aurrera dagoen bide zatia konpondu, 166 autorendako aparkalekuak zehaztu eta jarleku erosoak ipini. Horiek dira aurreikusten diren neurri adierazgarrienak. Azkenaldian Urkulu albo batera utzita egon dela eta, neurriak hartzea erabaki du Udalak.

Udalaren ustez, gaur egun degradazio handia bizi du Urkuluk. Horregatik, Urkulu berreskuratzeko proiektua egin, eta abian jarri du. Diputazioak hala eskatuta, aurten egingo dira lanak.

GOROETATIK AUERRERA ASFALTOA

Goroetatik aurrera bidea zuloz beteta dagoela eta, asfaltatu egingo dute bide zati hori. Litekeena da, gainera, behin konponduta piboteak jartzea Goroetatik aurrera. Auzo horretako bizilagunek ez lukete arazorik izango, eta hortik aurrera baserria eta lursailen bat dutenei, piboteak jaisteko giltza emango die Udalak. Bestalde, urtegitik ezkerre- ra piboterik jarriko ez bada ere, autoentzat bertatik igarotzea debekatuta dagoela adieraziko duen seinalea jarriko da.

AUTOENDAKO APARKALEKUAK

166 autorendako aparkalekuak zehaztea izango da hartuko den beste neurrietariko bat. Urkulura iristen garen heinean, eskumara dagoen bide zatian, eta handik aurrerago dagoen iturri parean aparkatu ahal izango da autoa. Urkulura iritsi eta ezkerre- ra, berriz, ezin izango da autorik utzi. Bestalde, txirrindularien erabilera arautzeko, errepidean zati bat gorriz margotu, eta bizikletentzat utziko da. Eta oinezkoiei zuzenduta, eserlekuak eta gimnasiako ariketak egin ahal izateko barrak ipiniko dituzte.

Guztira 627 mila euroko aurrekontua izango du proiektuak, eta laster Aretxabaletako Udalak eta Diputazioak hitzarmena sinatuko dute, Foru Aldundiak diru kopuru garrantzitsua emango duela espero baita.



MARIA AGIRRE

Gaur egun zuloz beteta dago Goroetatik aurrera dagoen kaminoa. Gainera, kamioien joan-etorria handia izaten da.

Txirrindularien erabilera arautzeko, errepidean zati bat gorriz margotuko dute

Udalaren ustez, gaur egun degradazio handia bizi du Urkuluk. Lanak aurten egingo dira.


627 mila euroko aurrekontua izango du proiektuak. Diputazioak diruz lagunduko du.

JOXE ANJEL ANTIXIA / INGURUMEN BATZORDEBURUA ETA ARALAR ALDERDIKO ZINEGOTZIA

“Urkulun automobilen joan-etorria murriztu nahi da”

Goroetatik aurrera dagoen zatia asfaltatzea erabaki duzue? Zergatik asfaltatu?

Goroetatik aurrera dagoen kaminoa asfaltatu edo beste neurriren bat hartu beharko litzatekeen eztabaidatzen izan gara udal-letxean. Aralarako kideok ez genuen batere garbi kaminoa asfaltatzearena, baina azkenean horren alde egin dugu. Estetiko-ki izan dezake inpaktu bat, baina azken baten kaminoaren mantenturako egokia da. Asfaltatuz gero, urte dezente iraungo du. Hori bai, baldintza bat jarri dugu: asfaltatzen denean piboteak jartzea autoen joan-etorria mugatzeko.



Piboteak non, Goroetatik aurrera?

Goroetatik aurrera derrigorrez, baina gure ustez ezkerre- dean ere piboteak behar dira. Azken baten Urkulun autoen

joan-etorria murriztu nahi da, eta oinezkoiei lehentasuna eman. Ezkerrean ere piboteak jartzea proposatuko dugu, horrela gehiago babestuko baitugu Urkulu.

Autoendako 166 toki zehaztuko dira. Nahikoa izango dira?

Uste dugu baietz, baina Otaloran eta Bainuetxeko industrialdean autoa uzteko aukera dagoela jakinarazteko seinaleak jarriko dira. Seinale asko jarriko ditugu, jendeari ohartarazteko.

Udaltzainik izango ote da Urkulun?

Zehaztu barik dago hori guz-

tia, baina nik uste dut udaltzainak izango direla. Hasieran jendeari jakinaren gainean jartzeko, baina gero isunak ipintzen.

Urkulu berritzeko proiektua bizkor erabaki behar izan duzue.

Obrak aurten egitea, hori izan da Diputazioaren baldintza. Horregatik, erabakia bizkor hartu behar izan dugu. Egokiena aretxabaletarrei jakinarazi, eta ondoren erabakia hartzea litzateke, baina ez da astirik izan. Diputaziotik 500 mila euro jasoko ditugu, eta ez genuen aukera hori galdu nahi. Gainontzekoa Udalak ordainduko du.

J.J. IRURE
ITURGINTZA
URA
GASA
KALEFAKZIOA
MITARTE, 15
ARETXABALETA
943 793 187

O R L A
Herriko plaza z/g ARETXABALETA

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**
Aretxagazeta

**Dorleta
taberna**
Bezeroen zerbitzura
Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

BIXEN CALZON/GOIENA SPORT-EKO ARDURADUNA

"Astean spinningeko bederatzi eskola ematen ditut"

MARIA AGIRRE

Bixen Calzon aretxabaletarra ari da ardura-tzen kirol etxeko kirol jarduerekin. Horretarako, Goiena Sport izeneko enpresa eratu du. Arduraduna izateaz gain, eskolak ere ematen ditu Bixenek. Spinninga sekulako arrakasta izaten ari dela eta, astean bederatzi eskola ematen ditu.

Irailaz geroztik ari zara kirol etxeko kirol jarduerekin arduratzen.


Hala da bai. Udalak lehiaketa deitu, eta aurkeztea erabaki nuen. Horretarako, Goiena Sport izeneko enpresa eratu nuen, eta niri eman zidaten ardura. Guztira sei lagun ari gara Goiena Sport enpresan lanean. Bi sorosleak dira eta igeriketaz gain, aquagyma ere erakusten dute; beste bik harreraren egiten dute lan, eta gainontzeko biok sasoiaren egoteko gimnasia, hirugarren adinerako gimnasia, spinninga, aerobika, banakako entrenamendua eta adimen urritasuna dutendako gimnasia erakusten ditugu.

Guztietatik spinniga ari da sekulako arrakasta izaten.

Bai, taldeak segituan bete dira, eta jendea itxaron zerrendan dago. Beharbada berria delako-edo, baina espero ez genuen harrera izan du. Pentsa, nik astean bederatzi eskola ematen ditut! Jendeak, gainera, orokorrean dio gustuko duela. Hala ere, herritarrek jakin dezatela gustuko duten kirol jarduera proposatzeko aukera dutela. Talde bat etorri eta zerbait zehatza egin nahi duela esanez gero, talde horri ere aukera emango diogu.

Zein helbururekin etortzen da jendea kirola egitera?

Gehienetan irudiagatik, argal-



MARIA AGIRRE

tzearren edo giharrak lantzearren. Badakizu, gaur egungo gizartearen irudiak garrantzi handia du! Hala ere, bada osasuntsu egoteagatik edo kirolak on egiten diolako etortzen denik ere.

Banakako entrenamendua ere eskaintzen duzue. Zein kirol egin behar du argaldu nahi duenak?

Lan aerobikoa jartzen diogu, baina betiere bere gustukoa ote den jakinda. Ez diot inori aginduko bizikletaz ibiltzea gustuko ez badu. Zer egitea gustatzen zaion, ba horren arabera prestatzen diot entrenamendua.

Banakako entrenamenduz jarraituz, jendeak izango du beste helbururik ere.

Bai, esate baterako, Behobia-Donostia prestatu nahi duten pare bat lagun etorri dira. Beste batek, berriz, ur azpiko arrantza egiten duela eta, biriketako gaitasuna handitu nahi zuen. Helburuak askotarikoak izan daitezke. Gainera, banakako entrenamenduan medikuen laguntza ere badugu. Athlon taldeko medikuen zerbi-

tzuaz baliatzen gara horretarako. **Hainbat gimnasiotan dietak jartzen dituzte, eta baita janariak saldu ere.**

Nik argi dut, dieten inguruan badira adituak, eta horiengana joan behar da. Hala ere, kirola egiteko orduan ere denetarik jatea osasungarriena dela uste dut.

Orokorrean zein kirol duzu gustuko?

Edozein kirol dut gustuko, denetarik egiten dut, baina betidanik futboleak aritu izan naiz, duela urte bi bergarako preferente mailako taldean jokatu nuen.

Ikasten ere ari zara.

Bai, soin hezkuntzako ikasketak egiten ari naiz, lizentziatura atera gura dut. Maisu ikasketak egin nituen hasieran, heziketa fisikoan oinarrituta, baina orain, esan bezala, lizentziatura atera nahi dut.

Zelako kirol etxea dugu Aretxabaletan?

Nire ustez herri honek merezi du kirol etxe duinagoa. Txiki geratu dela argi dago; hala ere, oso ondo aprobetxatuta dago.

"Gehienetan irudiagatik, argaltzearren edo giharrak izatearren etortzen da jendea"

"Banakako entrenamenduan medikuen laguntza dugu. Athlon taldekoen zerbitzua"

"Herri honek merezi du kirol etxe duinagoa. Txiki geratu dela argi dago"

ETXEAN JOKATUKO DA PARTIDUA 16:30ETAN

Domekan derbia jokatu dute preferente mailako UDAk eta Aloña Mendik

Partidu zaila izango du datorren domekan preferente mailako UDAk. Derbiak betiere estuak izaten direla eta, Aloña Mendi irabaztera etorriko da Aretxabaletara. Preferente mailan urte asko daroanez Oñatiko taldeak, partidua gogorra izango dela uste du Neka Galan UDAko entrenatzaileak. Hala ere, derbia izanik bi taldeek aukera berak izango dituztela adierazi digu.

FOTOKIROLA



Karatekoak Kurtzebarrin entrenatzen

Hemendik aurrera, Kurtzebarri eskolako gimnasioan entrenatuko dira karate taldeko kideak. Bi talde daude: sei eta hamabi urte bitartekoa eta hamabi urtetik aurrerakoa, hain zuzen ere. Gaztetxoek taldea 20 lagunek osatzen dute, eta nagusien zortzi lagun ari dira parte hartzen. Martitzen eta egubakoitzetan izaten dira eskolak, eta hala nahi dutenei esku hartzeko dei egin nahi diete taldekideek. Sasoiaren egoteko, karatea oso kirol gomendagarria dela diote. /MARIA AGIRRE

PARTIDUAK

FUTBOLA

Preferentea.
UDA -ALOÑA MENDI
Domeka. 16:30. Ibarra

EMAITZAK

FUTBOLA

Preferentea
Tolosa 0 UDA 0
Ohorezko liga
UDA-ARIZMENDI 3
HONDARRIBIA 2
Lehenengo mailako jubenilak
SAN IGNAZIO 2
UDA-ARIZMENDI 3
Lehenengo mailako kadeteak
UDA-ARIZ. 1 TOURING 2
Bigarren mailako kadeteak
UDA -ARIZ. 6 ZESTOA 0

Ohorezko infantilak
Touring 2 UDA-ARIZ. 5
Infantil txikiak
UDA-ARIZMENDI 4 BEASAIN 0
Emakumezkoak F-11
SALVATIERRA 0
UDA-ARIZMENDI 2
Emakumezkoak F-8
UDA-ARIZMENDI 4
ARIZMENDI 1

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

**ZARAIA
taberna**

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

Lasai


**Mirian Manteca
masajista**

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
- Kraneala
- Estrukturala
- Funtzionala
- Lotura muskularrak

ERRETRATUZAHARRA

Emakume ugari lanean Coprecin



Coprecik 1962an hasi zuen ibilbidea, nahiz eta urtebete lehenago kooperatiba eratze-ko bilerak hasi zituzten.

Pedro Mendieta, Jose Mari Sarasua, Jose Mari Ortubai eta Luis Mari Aranak hasi zuten ibilbidea Arizmen-diarrrietaren babespean. Lantegia eraikitzeko Caja Laboral Popular banketxearen laguntza izan bazuten ere, derrigorrezkoa izan zuten aretxa-baletarren dirulaguntza ere. Jende askok nahi zuen proiektu hartan parte hartu, baina 90 lagun aukeratu zituzten, eta guztiek euren poltsikotik jarri behar izan zuten dirua. Garai hartan, beste norbaitentzat lan egin, eta lantegiko partaide izateko egarri handia zegoenez, arrakasta handia izan zuen deialdiak.

Ulgorrek osagaien beharra zuen, eta horiek egiten hasi ziren Coprecin. Berogailuendako nahiz sukaldeetarako osagaiak egiten hasi ziren. Baina segituan euren produktuak merkaturatzen hasi ziren, iturriendako balbula jakin batzuk, orduko legeak hala eskatzen baitzuen. Era horretan euren

katalogoa osatzea lortu zuten. Oso hazkunde azkarra izan zuen Coprecik, eta hasierako urteetan irabazi handiak izan zituzten. Hala ere, lan sari txikiekin jarraitzea erabaki zuten langile eta zuzendaritzakoek, horrela irabaziak lantegian inbertitzeko. Sortu eta bederatzi urtera, 900 bazkide

zituen Coprecik. Horietako asko emakumeak ziren, muntaia lan ugari baitzegoen Coprecin. Argazkian ikus daitekeen moduan, herriko hainbat emakumeri eman zien lana lantegi horrek. Lekukoek dioten moduan, ez zen inolako eragozpenik izan emakumeak ere lanean has zitezen. Handik


lasterrera, baina, idazkaritzako eta beste maila bateko lanak egiten hasi ziren. Gaur egun, berriz, Copreciko edozein alorretan egiten du lan makina bat emakumek.

Argazkia: Copreciko argazki artxiboa

NOLAALDATUDIRENGAUZAK


Basabe ingurua asko aldatu da

Azer-nolako lursaila ikusten den alboko argazkian. Hirurogeiko hamarkada baino lehenago herrian ez zegoen lantegi askorik, eta nekazaritzarako erabiltzen ziren lursailak ugari ziren. Hamarkada hartatik aurrera, berriz, ingurua lantegiz betetzen joan zen. 1962an Copreci kooperatiba eraiki zuten, eta geroago, berriz, Aretxabaleako Industrialdea.



≈ 1962

Copreci lantegia eraikitzen hasi orduko, honako itxura erakusten zuen Basabe inguruak.



2004

Gaur egun zelaia gutxitu egin dira Basabe inguruan, eta ordez industrialdea nagusitu da. Enpresa asko dago gaur egun inguru horretan.



Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 79 86 21 telefonora.



Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko urriaren 8a / 181. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11. 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Mobilizazio baketsuen aurrean Ertzaintzak izandako jarrera salatu du udalbatzak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Marixol Iparragirre *Anboto* atxilotu zutela-eta, kale agerraldiak egin dituzte astean zehar Eskoriatzan. Hala, ertzainekin izandako tirabirak neurritz kanpokoak izan direla onartu zuen udalbatzak. Adierazpen eta biltzeko askatasunak aldarrikatu dituzte.

Marixol Iparragirre *Anboto* eskoriatzarra da, eta domekan atxilotu zuten Biarnon (Saliesen), ustez ETAko kide izateagatik. 1981ean egin zuen alde herritik Marixolek, 20 urte zituela. Polizia iturrien arabera, ETAREN atentatu askotan parte hartu zuen. Atxiloteta egunean bertan, kale bilkura egin zuten berrehun bat lagunek herriko plazan. Bildu bezain laster, ertzainak agertu eta bertan elkartutakoak sakabanatu egin zituzten. "Bi pertsona zauritu zituzten, eta pertsona bat atxilotzen saiatu ziren. Saiakera horren ondoren, kargak hasi ziren, gerturatutakoaren artean izua eta inpotentzia sortuz", eman du aditzera Askatasunak.

Astehenean jende mordoak elkartu zen, bereziki Marixolen



Astehenekoa zauritua lurrean, ertzainen begiradapean, erizainak zaintzen ari direla.

zazpi urteko semearen berri izateko—Marixolen familiaren esku geratu zen martitzenean—. Ertzainen presentziak eraginda, eserialdia egin zuten. Hala, ertzainek azaldu zuten baimenik gabeko agerraldia, zela-eta norbait iden-


tifikatu behar zutela. Santi Iparragirre, Marixolen anaia, hartu eta furgonetara sartu behar zutenean, zauritu eta antsietate-krisia izan zuen, konortea galduz. Erizain batek zaindu ostean, ertzainek identifikatu egin zuten,

jarraian Iparragirre eskualdeko ospitalera eraman ahal izateko. "Gogor salatu nahi ditugu gertara larri hauek", eman du aditzera Eskoriatzako Askatasunak. Euren esanetan, elkarretaratze baketsuak egin dituzte orain arte,

eta aurrerantzean ere horrela izateko gurako lukete.

EZOHIKO OSOKO BILKURA MARTITZENEAN Martitzenean Kontzejupe herri plataformak hala eskatu eta alkatuek deituta, ezohiko osoko bilkura egin zuten. Hala, Marixolen familiaren aldeko mozioa onartu zuten. "Familiari elkartzuna adierazi nahi diogu eta gure ardura adierazi atxilotuek jaso dezaketzen tratua inguruan", esan zuen Juan Carlos Bengoa alkateak.

Mozioa aldeko zortzi botorekin onartu zuten. EAKo hiru, EAJko bi, EBko bi eta Elizateetako boto batekin. Bestalde, ez ziren osoko bilkuran egon EAJko zinegotzi bat eta PSEE-EEko bi. "Mobilizazio baketsu baten aurrean Ertzaintzaren presentzia lekuz kanpo egoteaz gain, haiek erakutsitako jarrera guztiz onartezina da", eman zuen aditzera udalbatzak. Ertzaintzaren presentzia salbuespen egoeretan bakarrik dela beharrezkoa gaineratu zuen. Amaitzeko, Euskal Herriko gatazka konpontzeko giltza dutenei dei egin zieten, gizarteak eskatzen duen bakea lortzeko ahalegin guztiak egin ditzaten.



Leintz Bertso Eskola sortu dute euskara elkarteek

Axtroki, Loramendi eta AED euskara elkarteek Leintz Bertso Eskola sortu dute. Euskaraz bizi eta bertsoan ikasteko aukera ematen du. Hilaren 29an hasiko dira eskolak; egubakoitzetan elkartuko dira, 17:00etan. 9 eta 11 urte bitarteko gazteei zuzendutako eskaintza da. Euskara elkarteetako bazkideek 15 euro ordaindu beharko dituzte izena emateko; gainerakoek, 20 euro. Interesatuak urriaren 27a baino lehen eman beharko dute izena Axtrokin. /Z.V.M.

LABUR

Istripuen prebentzioari buruzko hitzaldia

Olazar erretiratuen elkarteak eta Gipuzkoako Kutxa ikasgelak antolatuta, *Istripuen prebentzioa eta norberaren zaintza* mintzaldia eskainiko dute eguenean, hilak 14. Nagusiei zuzendutako hitzaldia izango da. Ana Atientza arituko da hizlari lanetan, eta udaletzeko osoko bilkuren aretoan egingo dute jardunaldia, 17:00etan. Ana Atientzak azalduko du hirugarren adinera heldzean ahalik eta segurtasun handiena izateko zer-nolako neurriak hartu behar diren.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Astroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Ofiati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

KIROLDEGIKO OHARRA

Astehenean, urriak 11, kiroldegia goizez bakarrik irekiko dute. Asteheneko ordutegia, beraz, 09:30etik 13:00etara izango da.

ELIZAKO KONTUAK

Datorren martitzenean, hilak 12, goizeko hamarretan esango dute meza San Pedro elizan. Arratsaldean, berriz, ez dute mezarik esango.

Bestalde, Pastoral urtea hasteko, domeketako meza 12:00etan esango dute hemendik aurrera. Gainerako meza orduak ohikoak izango dira.

AXTROKIRENAGENDA

LUDOTEKARI LAGUNTZAILEA

Eskoriatzako Tortolis ludotekak, ludotekari laguntzaile berria du. Aritz Oiangueren eskoriatzarrak beteko du aurrerantzean lan hori eta ziur gaztetxoekin primeran konponduko dela Aritz.

'ESKORIATZAKO HERRIA' IKERKETA BEKA

Irudi bidez Eskoriatzako historia ezagutarazteko Udalaren beka

Z.V.M.

Eskoriatzako argazki zaharrak eskuratu, katalogatu eta digitalizatzeko beka atera du Udalak. Izan ere, herriko oroimen historikoa gordetzen laguntzeko funtsezko lana da. Urriaren 11tik 26ra bitartean izena emateko aukera egongo da. Dirulaguntza 2.800 euro izango da.

Udalak Eskoriatzako Herria Ikerketa Bekarako deialdia egin du. Bekaren funtsa da herriko argazki zaharrak bildu, inbentarioa egin, katalogatu eta digitalizatzeko. Argazkiek historia kontatzen laguntzen dutela aintzat hartuta, Udalak beka kaleratu du; "herriaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz arduraturik" plazaratu du laguntza.

Lan hori banaka edo taldeka egiteko aukera egongo da. Lantaldia osatuz gero, proiektuaren zuzendari-arduradun bat izendatu beharko litzateke. Hala ere, guztientzat baldintza bera jarri du Udalak: hain zuzen, elkarriketa eta dokumentazio lanak euskaraz

Lau hilabete egin beharko da lana; atzeratuz gero, Udalak zigortzeko ahalmena izango du

egiteko gaitasuna izatea. Interesatuek urriaren 11tik 26ra, Eskoriatzako alkateari zuzendutako eskaera orriarekin batera, curriculum, lana nola egingo luketen adierazten duen memoria bat eta nortasun agiriaren fotokopia eman beharko dituzte.

LANA EGITEKO HAINBAT BALDINTZA

Lana egiteko orduan, honako atalak landu beharko dira: argazkien sailkapena egiteko irizpideak azaldu; lehendik Udalaren esku dauden argazkiak zerrendatu, eta eurei buruzko informazioa jaso eta katalogatu; argazki berriak jaso eta dokumentatu; argazki, kultura, eta ohiturei buruzko elkarriketak



ARTXIBOA

Argazki zaharrek orduko ohiturei buruz gehiago jakiteko balio dute, besteak beste.

jaso; eta azkenik, multimedia aplikazio informatiko baten bidez, bildutako materiala digitalizatu eta datu-basean sartu. Lau hilabeteko epea emango zaie egiteko ardura-

dunei. Gainera, Udalak aditzera eman duenez, azken data arrazoirik gabe atzeratuz gero, zigorra jartzeko aukera izango dute. Informazio gehiago, udaletxean bertan.

Wi-fi sistema bidez seinalea elizateetara

Z.V.M.


Eskoriatzako Udalak hainbat lan egingo ditu datozen hilabeteotan herrian. Horietariko bat da Marin, Zarimutz eta Mazmelara wi-fi sistema bidez bai telebista eta baita Internet seinalea ere eramatea. Oraingo sistemaren bidez elizateotan seinalea ez da behar bezala jasotzen.

Eskoriatzako Udalak datozen hilabeteotan Mazmela, Zarimutz eta Marin elizateetara wi-fi sistemaren bidez telebista eta Internet seinalea eramateko lana esleituko du. Satellite bidez dabilen sis-

temak seinalea abiadura egokian jasotzeko aukera ematen du.

Hiru elizateotan, ez dira ondo jasotzen ez telebista ezta Internet seinalea ere. Hala, Udalak arazoari konponbidea bilatu gura izan dio, eta errepikagailua jartzeko asmoa du inguru horietan.

Telefono-sare bidez egiten da orain Interneterako lotura. Sistema horrek ez du abiadura handitzen uzten. Izan ere, Eskoriatzako telefono-zentraletik urrun daude elizateak, eta, gainera, kableak ez dira egokienak. Wi-fi sistema aukeratu dute konponitzeko. Proiekturako zehaztutako aurrekontua 125.940 euro da.




ARTXIBOA

Laster, orain baino abiadura handiagoan jasoko dute Internet zerbitzua.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza



MIRENTXU
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

TOKI
ALAI
TABERNA

Karajiloetan
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

BIGARREN MENDI BIZIKLETA IBILALDIA

Giro bikainak lagundurik 120 lagunek ibilbidearen 25 kilometroak egin zituzten

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Arrakastatsua izan da aurten-go Gatzagako Mendi Bizikleta Ibilaldia. Eguraldi ona arrazoi, lagun ugari animatu zen bertan parte hartzera. Ingu-ruak ezagutzeko aukera paregabea izan zuten bi ibilbideak egitera askotariko tokietatik etorritako lagunek.

Urriaren 3an, domeka, II. Mendi Bizikleta Ibilaldia egin zen Gatzagan. Eguraldi bikaina izan zuten parte-hartzaileek, prestatutako 25 kilometroak egiteko.

Goizeko hamarretan irten ziren herriko plazatik lehenen ibilbidea egitera animatu ziren 125 lagunak. Euren bizikleta gainera igo, kaskoa jantzi eta Gatzagako inguruetan dauden hainbat mendi eta basotara abiatu ziren. Ibilaldian zehar, Dorleta, Olaun, Dominaga, Hiruerreketa, Landa, Gure Ametsa, Maroto, Txarrantxategi zeharkatu zituzten, besteak beste.

GUZTIRA 140 PARTE-HARTZAILE

Nagusien ibilbidean 120 lagunek hartu zuten parte, horietatik hiru emakumezkoak. Parte-hartzaileek ez zuten aparteko arazorik izan bidea egiteko. Bat edo beste erori zen, baina ez zen ezer larri-rik gertatu.

Domekako Ibilaldian toki askotako jendea egon zen, nahiz eta gehienak ibarrekoak izan. Menditik bueltan Gatzagara iritsi zen lehenengoa Josu Seguro-la izan zen. Hamaika eta erdie-tan heldu zen Gatzagako San

Migel plazara; hau da, ordu eta erdian egin zuen ibilbidea. Antolatzaileek adierazi dute bidea azkar egin zuela. Izan ere, gainerako parte-hartzaileek 12:00ak eta 12:30ak inguruan amaitu zuten ibilbidea.

Bestalde, 11:00etan bigarren bidea egingo zuten 20 lagunek Gure Ametsatik Landarako bidea hartu zuten. Berriz ere Gure Ametsara itzuli eta ondoren, Gatzagara joan ziren, gainerako partaideekin batera zerbait jan eta hainbat opariren zozketan parte hartzeko.

ANTOLATZAILEAK GUSTURA

“Oso pozik gaude II. Mendi Bizikleta Ibilaldiarekin. Eskerrak eman behar dizkiegu Gatzagara etortzera animatu ziren lagun guztiei”, esan dute ibilaldiko antolatzaileek. “Ez gara pozik gauden bakarrik, partaideak bai ibilbidearekin eta baita antolaketaekin ere oso gustura geratu baitira”, jarraitu du Jon Sasiainek. Izan ere, helmugan txirrinduak garbitzeko aukera zuten guztiek iritsi ahala, eta indarberritzeko salda beroa eta hainbat jaki zeuden prestatuta frontoian.

Behin jende guztia herriko plazan bilduta, hainbat opari zozketatu zituzten antolatzaileek. Horien artean, ardo botilak, gaztaiak, urdaiazpikoak, eta Jakion etxeko produktuak aurki zitezkeen. Aurtengo arrakasta ikusita, datorren urtean hirugarren ibilaldia egingo dutela eman dute aditzera Dorleta batzordeko kideek.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Ibilbidean zehar indarrak galdu zutenek, jatekoa eta edatekoa aurkitu zuten indarberritzeko.

“Batzordearen eta Udalaren partetik eskerririk beroenak domekan etorri ziren guztiei”

Antolatzaileak ez ezik, partaideak ere gustura geratu ziren ibilbide eta antolaketa lanekin



- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA**

Ze barri?

**NAIRA
Taberna**

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71



Maulanda *merenderoa*



MAULANDA MERENDEROA

Maulanda auzoa, 20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

Eguneroko
menua!



Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA





Urte bukaera arteko harpidetza.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.